

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

- 5107** *Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 3/2014 Legea, martxoaren 27koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina aldatzen duena, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.*

Hutsa atzeman da martxoaren 27ko 3/2014 Legean, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua) aldatzen duenean, zein 2014ko martxoaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (76. zenbakia) argitaratu baitzen; eta, honen bidez, honako zuzenketa hau egiten dugu:

11. orrialdean, hamabosgarren paragrafoan, hau dioen lekuan:

«Hamabost. Aldatu egiten da 63. artikulua idazketa, eta honela idatzita geratzen da:

"Kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egiten diren kontratuetan, horiek faktura paperean jasotzeko eskubidea izango dute. Hala dagokionean, enpresariak kontsumitzailearen berariazko eta alde zuzeneko baimena jaso beharko du, kasuan kasuko faktura elektronikoa igortzeko. Baimen-eskaera horretan, behar bezala zehaztu beharko da faktura elektronikoa jasotzeko modua, baita bere onspena eman duen hartzaileak hura baliogabetzeko aukera duela eta hori nola egin dezakeen.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak, faktura paperean jasotzeko duen eskubidea gauzatu ahal izateko, ez du, inola ere, kopuru ekonomiko bat ordaindu behar izango."»

Hauxe esan behar du:

«Hamabost. 63. artikuluan, beste paragrafo bat gehitzen da, 3.a, eta honako hau dio:

"3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egiten diren kontratuetan, horiek faktura paperean jasotzeko eskubidea izango dute. Hala dagokionean, enpresariak kontsumitzailearen berariazko eta alde zuzeneko baimena jaso beharko du, kasuan kasuko faktura elektronikoa igortzeko. Baimen-eskaera horretan, behar bezala zehaztu beharko da faktura elektronikoa jasotzeko modua, baita bere onspena eman duen hartzaileak hura baliogabetzeko aukera duela eta hori nola egin dezakeen.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak, faktura paperean jasotzeko duen eskubidea gauzatu ahal izateko, ez du, inola ere, kopuru ekonomiko bat ordaindu behar izango."»